

AISTĒ DIRŽIŪTĒ NEW DIRECTORS

“Zuzendarien lehen eta bigarren lanen zale sutsua naiz”

IRENE ELORZA

Aistė Diržiūtė (Vilkaviškis, Lituania, 1991) aktore lituaniarra bereziki ezaguna egin zen *Sangailės vasara* (*The Summer of Sangailė*, Alantė Kavaitė, 2015) filmean egindako lanagatik. Gaztea izan arren, zazpi aldiz izan da zinema jaialdietako epaimahaikide. Oraingoan, Zinemaldiko Kutxabank-New Directors Sariaren Epaimahaia- ren lantaldeko kide da, Belén Funes eta Ariel Schweitzer-ekin batera.

“Epaimahaikide ikaragarriak ditut ondoan, eta hirurak sekulako taldea egiten dugula uste dut, dio Diržiūtėk. Bakoitzak bere ikuspegi ezberdina ekarriko duela eta berak enpatiaren ekarpena egingo duela ziurtatzen du. “Profesional on askorekin egon naiz epaimahaietan eta asko irakatsi didate”, azaldu du aktoreak, “gainera, zuzendarien lehen eta bigarren lanen zale sutsua naiz, benetan txundigarria delako zerbait deskubritzea; izan ere, abenturazale bat bezalakoa sentitzen zara, odisea bateko bidaiariaren gisakoa”.

Diržiūtėk badaki zer den hasiber- ritan bultzada jasotzea. European Shooting Stars sarietan parte hartu zuen emakumezko lehen aktore lituaniarra izan zen. “Ni ez nintzateke hemen egongo sari horrengatik ez balitz”, azaldu du. “Lituania bezalako herrialde txiki batetik etorrita, industriarik ia ez dagoen toki batetik, film onak baino urriake giten diren toki batetik, sari hau gabe agian ezin izango nuke kanpora atera eta gauza berriak egiteko ausardiarik senti- tu”, gaineratu du artista lituanarrak.

Kutxabank-New Directors Sari- rako filmak aztertzerakoan aktoreen lanetan bereziki erreparatzen duen galdetuta, Diržiūtėk honela azaltzen du bere zeregina: “Aktore bat lanean



MONTSE CASTILLO

ikusteko aukera dudak bakoitzean, pantailan ikusten dudana berriro bi- zitzen dut berarekin batera. Askot- ta fija- tzen naiz nola egiten dituzten gauzak eta beti joaten naiz ikasten; uste dut hori ere nire lana dela epaimahaiki- de gisa”.

Donostia eta zinema

Hiriarekin maitemindu dela aitortu di- gu aktoreak. “Nire lehen aldia da bai Donostian baita Euskal Herrian ere. Zinemaldia ezagutzen nuen jada, pro-

gramatzaileetako bat, Roberto Cue- to, nire lagun ona delako”, adierazi du aktoreak. Zinemaldia hasi baino lehen etorri zen inguruak ezagutzera. “Biziki gozaten ari naiz; Zinemaldi- ren zoramena hasi baino lehen ibili eta ezagutzea gomendatu zidaten eta oso aholku ona izan da”, esan du Diržiūtėk. “Oso ederra izan da ibili garen hainbat leku ondoren Woody Allenen *Rifkin’s Festival* filmean ikusi ahal izatea; oso hiri ederra da, ikara- garri polita, magikoa”.

La aventura de las primeras obras

Pese a su juventud, la actriz lituana Aistė Diržiūtė ha ejercido de jurado en numerosos festivales de cine. En esta ocasión, forma parte del jurado de New Directors junto con Belén Funes y Ariel Schweitzer. Espera aportar su natural empatía al juzgar las obras que conforman esta sección. “Soy especialmente seguidora de las primeras y segundas obras de los directores; te sientes como una aventurera, como la viajera de una odisea”, declara la artista. Para Aistė Diržiūtė ha sido muy emocionante volver al cine en la pasada gala de inauguración del Festival de San Sebastián: “Escuchar a José Luis Rebordinos y a Thierry Frémaux sobre el escenario diciendo que el cine nunca morirá me puso al borde de las lágrimas”. Según Diržiūtė, el festival respira amor por el cine y está realizando un esfuerzo colectivo elogiado.

Hiriak eta Zinemaldiak arrasto sa- kona utziko dizkiola aitortu du. “Ni- retzako sekulako emozioa izan da zinemara itzultzea eta inaugurazio ekitaldian José Luis Rebordinos eta Thierry Frémaux oholtza gainean en- tzutea; Frémaux esan zuenean zine- ma ez dela inoiz hilko, negar egiteko gogoia sentitu nuen”, adierazi du hun- kituta. Kursoaren zegoela, benetan

Thrilled to be back in the cinema

The Lithuanian actress, Aistė Diržiūtė, is best known for her role as Auste in *The Summer of Sangailė*, which premiered at the Sundance Festival in 2015, where it won the award for Best Director. Last year she also presented the European Film Awards in Berlin but she is now in San Sebastián as a member of the New Directors Jury. Although she had heard about the Festival when she met the programmer Roberto Cueto in Minsk, this is the first time that she has actually visited the city. She hopes to be able to bring her natural empathy to bear on judging the films that make up the section, and says she is a big fan of the first films by directors. She also said that it was really thrilling to go back to the cinema for the Opening Gala of the San Sebastián Festival. “Listening to José Luis Rebordinos and Thierry Frémaux on stage declaring that cinema would never die made me want to cry; it was an amazing feeling.” She also added that that you could really sense the love for cinema that the Festival exuded.

sentitu zuen 68. Zinemaldia antolatzea erabakitzearen garrantzia. “Hitzaldi zoragarri hura ikusleriarekin batera entzun, inaugurazio ekitaldi eder hor- rren lekuko izan, eta hainbeste jende ikusita lanean, distantzia mantentzen, dena segurua eta ondo egina egote- ko bere aldetik guztia ematen, hunki- tu egin nintzen zeren eta dena zine- marekiko maitasunagatik egin da”.

